




1917 • 2017

LEITZA 1917-2017 EKIMENA

AURKIBIDEA

- 1) Aurkezpena 3 orr.
- 2) Ekimenak..... 4 orr.
- 3) Egutegia..... 5 orr.




Leizako Udalaren itxura 1915 aurretik

1- AURKEZPENA

1917ko abuztuaren 11n gertakizun handi bat jazo zen Leitzan. Udaletxe berria inauguratu zuten garai hartako agintari eta herritarrek. Urte bat baino gehiago iraun zuten berrikuntza lanek eta, besteak beste, ezkerraldeko eta eskuinaldeko nabe edo eranskinak gehitu zitzaizkion eraikinari.

Ordutik eraikinaren barruan hainbat lan egin diren arren, kanpoaldetik ez du beste aldaketarik izan eta 1917ko egun horretan inauguratu zen bezalaxe ikus dezakegu gaur egun udal eraikina.



1915eko Udalak onartutako obraren planoak

Urteurren hori aprobetxatuz, hainbat haritatik tiratuz eta gai desberdinen bidez, urte osoko egitaraua osatu dugu Leitzako Udaletik. Otsailean hasi eta azarora arte iraunen duen programazioa da esku artean duzun hau.

100 urte hauen aitzakian 4 ekimen antolatuko ditu Udalak otsaila eta azarora bitartean eta urteko kultur zein herri eragileen agendan 100. urteurrenak eragina edo isla izan dezan saiatuko da.

Edozein modutan, egitasmo honekin ez dugu eraikin bateko obren urteurren soil bat ospatu nahi. Ekimen hau udal gobernuaren lan-molde eta helburuekin lotu nahi izan dugu. Honako helburuak lortu nahi dira antolatutako ekimenekin:

- Udala administrazioaren eskalan herritarrengandik gertuen dagoen erakundea izanik eta legegintzaldi honetan udal ireki baten alde egindako apustua kontuan hartuz, fisikoki ere **udal honen gertutasun eta irekitasun hori helaraztea herritarrei.**

- 100 urte hauetan herrian gertatu diren aldaketak baliatuz, **Leitzako memoria biltzea eta lantzea**. Udaletxean bertan jazotako jarduerak, herriko txokoetako aldaketak, ohiturak, ...
- **Leitzako altxorak berreskuratzea eta herritarren eskura jartzea**. Garai batean atera ziren argazkiak, jende gutxiren esku egon dira orain arte. Orain 100 urte eta hain urrutira joan gabe, argazkigintza edo zaletasuna ez da egon guztien eskura. Hots, aberatsek bakarrik atera zezaketen argazkiak.
- Legegintzaldi honetako ardatzetako bat **auzolana** izanik, antolatuko diren ekimen guztietan auzolana bera bultzatzea. Ekimenen antolaketan, datu bilketan, etab. herritar eta eragileak parte hartzera bultzatuz.

2- EKIMENAK

Hemen aipatzen diren ekimenez gain, 2017 urtean zehar hainbat sorpresa prestatu ditugu eta eragileekin lanean ari gara herriko agendan 100 urteurren honek isla izan dezan.

Udaletxean oihala zintzilikatuko da oroigarri moduan.

- Oihalak Leitza 1917-2017 lema izanen du.
- Logoak Udaletxearen fatxada irudikatzen du eta bertan, karrapea agertzen da. Leitzako ume, gazte eta nagusien elkarleku eta ekimen ugariren testigu.

Argazki erakusketa iraunkorra:

- Udaletxe osoa hartuko du eta otsailetik azarora bitarte egonen da ikusgai.
- Udalak 1915ean onartutako eraikin berriko planoak eta herriko argazki zaharrak egonen dira.

Ate irekien eguna udaletxean:

- Erakusketa iraunkorra izango denaren inaugurazioa izanen da.

Leitza ezagutu argazki erakusketa Aieneko garbilekuan:

- Leitzako txoko ezberdinetan garai batean eta gaur egun hartutako argazkiekin, Leitza nola aldatu den ikusi ahalko da.
- Guztira 20 argazki inguru egonen dira erakusketan.

“Leitza, argazki zaharretan” liburuaren aurkezpena eta mahai ingurua:

- “Leitza, argazki zaharretan” liburua izanen da Leitzako memoria bilduko duen euskarria. Bertan, 1915eko udalak onartutako planoak, udaletxe barruan izandako jarduerak (eskolak, kartzela, ...) eta herriko argazki zaharrak jasoko dira. Nolabait, egitasmo hau borobilduko duen euskarria izanen da.
- Liburu honetan azalduko diren argazkiak auzolanean bildu dira. Herritarrek 3.000 argazki inguruko ekarpena egin dute. Horien guztien artean aukeraketa lan handi baten ondoren liburuan 700 inguru sartu dira.

3- EGUTEGIA:

	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt	Abu	Ira	Urr	Az
Lona konmemoratiboa	13	X	X	X	X	X	X	X	X	X
Erakusketa permanentea	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
Ate irekiak	18									
Aieneko erakusketa (Kultur aroa)				15-28						
Mahai ingurua (Kultur aroa)				15-28						

**** Urtean zehar beste hainbat sorpresa bereziak ere prestatu dira, herritarrei itxarotea eskatzen diegu.**



1917ko abuztuaren 11ko inaugurazioko irudia

KONTAKTUAK:

Kultura zinegotzia: Julian Zabaleta; juzaba78@gmail.com; 663 087 651
Komunikazio: Markel Azkargorta, leitzaudalakomunikazioa@gmail.com; 617 385 622